

2012ko URRIAREN 9ko UDALBATZARRA
PLENO DE 9 DE OCTUBRE DE 2012

BERTARATUAK / ASISTEN:

ALKATEA / ALCALDESA: M^a SOL MARGARITA TABERNA IRATZOKI

ZINEGOTZIAK / CONCEJALES Y CONCEJALAS:

JON ABRIL OLAETXEA, FERNANDO BERASAIN GAINZA, NEKANE PEREZ IRAZABAL, GARAZI TABERNA TELLECHEA, JOSE MANUEL PORTU BERASATEGUI, ANDREA GOURAUD ALZUGARAY, UGAITZ ADO PRIETO, SANTIAGO ALZUGUREN MACHICOTE, ISIDORA AGUIRRE UBIRIA, JUAN LOSA OCARIZ.

IDAZKARIA / SECRETARIA: PILAR CHUECA INTXUSTA.

BERTARATU EZ DIRENAK / NO ASISTEN:

Inor ez.

Tokia: BERAkо Herriko Etxea

(Bernaldeta, Osoko bilkurak egiteko gaitu den lokala).

Eguna: 2012-10-09

Ordua: 19:40

Bilera-mota: ohikoa, 1. deialdia

Lugar: Casa Consistorial de BERA (Bernaldeta, lugar habilitado para realizar los Plenos).

Día: 09-10-2012

Hora: 19:40

Tipo sesión: ordinaria, 1^a convocatoria.

TRATATZEKO GAIAK:

ASUNTOS A TRATAR:

1.- AZKENeko AKTA ONARTZEA.-

1.- APROBACIÓN ACTA SESIÓN ANTERIOR.-

2012.eko abuztuaren 23an egindako bilera-ren akta ikusirik, aho batez, ONARTU DUTE.

Vista el acta de la sesión celebrada el día 23 de agosto de 2012, por unanimidad SE APRUEBA.

2.- TASAK ETA PREZIO PUBLIKOEN TARIFAK ALDATZEKO HASIERA BATEZ ONESTEA, 2013.eko EKITALDIA.

2.- APROBACIÓN INICIAL MODIFICACIÓN TARIFAS TASAS Y PRECIOS PÚBLICOS, EJERCICIO 2013.-

Alkateak aipatu du Ogasun Batzordean gaia tratatu eta PKIren igoera egitea proposatu dutela, Kirol instalazioaren kasuan BEZaren aldaketekin arazorik ez izateko tarifa BEZ gabe onestea.

La Alcaldesa explica que el tema se ha tratado en la Comisión de Hacienda y se propone la subida del IPC y en el caso de las instalaciones deportivas para no tener problemas con las modificaciones del IVA se establecen las tasas sin IVA.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Ikusirik, 2013.eko Tasak eta Prezio Publikoen tarifik aldatzeko expedientea.

Kontuan hartuz, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluak eta Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 13. artikuluak xedatzen duteña.

Por unanimidad, adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de modificación de las tarifas de las Tasas y Precios Públicos para 2013.

Teniendo en cuenta lo establecido en el artículo 325 de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local y en el artículo 13 de la Ley Foral 2/1995 de Haciendas Locales.

ERABAKI DUTE:

SE ACUERDA:

1) Honako prezio publiko eta Tasa hauen tarifik, expedienteean daudenak, hasiera batez aldatzeko onartzea:

- **Bide publikoko lurpea, hegalkina eta lurzoruanen aprobetxamendu berezien-gatiko tasak.**
- **Agiriak tramitatu eta luzatzeagatiko tasak.**
- **Udal kirol Instalazioak erabiltzeagatiko tasak.**
- **Irekitze baimenarengatiko tasak.**
- **Animalia arriskutsuak eta bestelakoak edukitzeagatiko tasak.**
- **Musika Eskolako tasak.**
- **Saneamendu eta ur hornidurarengatiko tasak.**
- **Trafiko isunak.**

2) Tarifa hauet jendaurrean paratzea 30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan expedientea aztertzeko aukera izan dezaten.

1) Aprobar inicialmente la modificación de las tarifas de las siguientes Tasas y Precios Pú-blicos, según constan en el expediente:

- Tasas por aprovechamientos especiales del suelo, vuelo y subsuelo de la vía pública.
- Tasas por tramitación y expedición de documentos.
- Tasas por utilización de Instalaciones Deportivas Municipales.
- Tasas por licencia de apertura.
- Tasas por tenencia de animales potencialmente peligrosos
- Tasas de la Escuela de Música.
- Tasas de abastecimiento de agua y saneamiento.
- Infracciones de tráfico

2) Exponer al público dichas tarifas, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.

- 3) Erreklamazio, kexa edo oharrik aurkezten ez bada lehen aipatutako epean, hasierako onespen hau behin betiko bilakatuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.
- 4) Behin betiko onespenaren ondoren, Nafarroako Gobernuaren Ordenantza Fiskalaren Erregistrora aldaketa hauek bidaltzea.
- 3) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones en el plazo indicado en el punto anterior el acuerdo de aprobación inicial pasará a definitivo. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.
- 4) Una vez realizada la aprobación definitiva, remitir estas modificaciones al Registro de Ordenanzas Fiscales del Gobierno de Navarra.

3.- 2013.eko UDAL ZERGEN KARGA/TASAK HASIERA BATEZ ONESTEA.

Alkateak Balorazio Ponentzia aurten onartzeako dagoen arazoa azaldu du eta Ogasun Batzordean tratatu ondoren proposamena da Kontribuzioa 1,5 puntu igotzea, beste gauzen artean, Udalari eragingo dioten BEZaren igoera eta diru-laguntzen murrizketengatik, gainontzeko zergak berdin uztea.

Aho batez, honako erabakia hartu dute:

Izanik, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legearen 64. artikuluaren arabera Udal zergen karga-tasak aldatzea, ondorioak izan behar den urtea hasi baino lehen onetsi behar dela.

ERABAKI DUTE:

- 1) Hirilur kontribuzioari % 0,215eko karga-tasa eta Landalur kontribuzioari, berriz, % 0,80koa ezartzea.

3.- APROBACIÓN INICIAL TIPOS IMPPOSITIVOS IMPUESTOS MUNICIPALES AÑO 2013.

La Alcaldesa explica la dificultad para aprobar la Ponencia de Valoración este año y tras haberlo tratado en la Comisión de Hacienda la propuesta es subir la contribución 1,5 puntos, entre otras razones, por la subida del IVA y la reducción de las subvenciones que afectan al Ayuntamiento, el resto de impuestos quedaría igual.

Por unanimidad, se adopta el siguiente acuerdo:

Siendo que según el artículo 64 de la Ley Foral 2/1995 sobre Haciendas Locales de Navarra, las modificaciones de los tipos impositivos de los impuestos municipales deben ser aprobados antes del inicio del año en que hayan de surtir efecto.

SE ACUERDA:

- 1) Establecer el tipo impositivo del 0,215 % a la Contribución Urbana y el 0,80 % a la Contribución Rústica.

- 2) Izaera urbanoko terrenoen balio gehi-kuntzaren gaineko zerga:**
Gehikuntza errearen zenbatekoa finkatzeko Toki Ogasunei buruzko Foru Legearen 175. artikuluaren laukian agertzen diren gutxienen urteko portzentajeak aplikatzea. Karga-tasa %10a izanen da.
- 3) Eraikuntzen, Instalazioen eta Obren gaineko Zergari % 4,5eko karga-tasa ezartzea.**
- 4) Iharduera Ekonomikoen gaineko Zerga:**
1,3 gutxieneko indizea aplikatzea.
- 5) Karga-tasa hauek jendaurrean paratzea**
30 egunez, iragarkia Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Herriko Etxeko iragarki oholean argitaratu eta gero, herritarrek eta bidezko interesa dutenek denbora horretan expedientea aztertzeko aukera izan dezaten.
- 6) Erreklamaziorik, aitzakiarik edota oharrik egiten ez bada, aipatu denbora pasatu ondotik, aipatu karga-tasak behin betikoz onetsi direla ulertuko da. Kasu honetan, ondorio juridikoak sortzeko, gertaera hau, behin betiko testuarekin batera, Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da.**
- 2) Impuesto sobre el incremento de los terrenos de naturaleza urbana:
Para determinar el importe del incremento real se aplicarán los porcentajes anuales mínimos del cuadro del artículo 175 de la Ley Foral de Haciendas Locales.
El tipo impositivo será el 10 %.
- 3) Establecer el tipo impositivo del 4,5% al Impuesto sobre Construcciones, Instalaciones y Obras.
- 4) Impuesto de Actividades Económicas:
Aplicar el índice mínimo de 1,3.
- 5) Exponer al público dichos tipos impositivos, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, por el plazo de 30 días para que los vecinos e interesados legítimos puedan examinar el expediente.
- 6) Si no hubiera reclamaciones, reparos y observaciones, una vez transcurrido el plazo indicado en el punto anterior, los tipos impositivos citados se entenderán aprobados definitivamente. En este caso, para la producción de efectos jurídicos, se publicará esta circunstancia, junto con el texto definitivo en el Boletín Oficial de Navarra.

4.- UDAL PLAN OROKORRAREN ALDAKETA EGITURATZAILEA, (P.10, L. 23) UE-LEKUEDER SORTZEKOA, HASIERA BATEZ ONESTEA: A. eta M^a J. PERUGORRIA

Idazkariak gaia azaldu ondoren, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, era-baki hau hartu dute:

4.- APROBACIÓN INICIAL DE MODIFICACIÓN ESTRUCTURANTE DEL PLAN GENERAL MUNICIPAL (P. 10, P. 23) CCREACIÓN UE-LEKUEDER: A. y M^a. J. PERUGORRIA

Tras la exposición del asunto por la Secretaría, por unanimidad, que representa la mayoría absoluta, legamente exigida, se adopta el siguiente acuerdo:

Ikusirik, Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzalea egiteko expedientea, 10. poligonoko 23. partzelaren zatian, UE-

Visto proyecto de modificación de determinaciones de ordenación estructurante del Plan General Municipal en parte de la parcela 23

LEKUEDER sortzekoa, -----ek sustatua.

Proiektua: ----- arkitektoek egina, 2012ko ekainakoa, dokumentu zuzendua-2.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarreraikiz Idazkaritzak egindako txosten, 2012ko irailaren 28koa, eta Nasuvinsaren txosten teknikoa, 2012ko abuztuaren 22koa, espedientean daudenak.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79.2), 70., 71. eta beste artikulu batzuekin bat etorriz.

Aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) Lehen adierazi den Udal Plan Orokorraren aldaketa egituratzailea, 10. poligono 23. partzelaren zatian, UE-LEKUEDER sortzekoa, -----ek sustatua, hasiera batez onestea.**
- 2) Bidenabarrean, 35/2002 Foru Legearen 52. 2 artikuluari jarraikiz babes publikoko etxebizitzen gutxieneko estandarraren beharkizuna kentzeko eskatza tramatzen ari den dokumentuan jarritako arrazoiengatik.**
- 3) Aipatu aldaketa hilabete bateko epean jendaurrean jartzea, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.**
- 4) Nafarroako Gobernuko Sustapen Depar-**

del polígono 10, por la que se crea la UE-LEKUEDER, promovida por -----.

Proyecto: Redactado por el arquitecto y arquitecta ----- de fecha junio de 2012, documento corregido-2.

Visto informe de Secretaría emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local, de 28 de septiembre de 2012 e informe técnico de Nasuvinsa de 22 de agosto de 2012, obrantes en el expediente.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.2), 70, 71 y otros de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por unanimidad, que representa la mayoría absoluta, legalmente exigida, SE ACUERDA:

- 1) Aprobar inicialmente la modificación estructurante en parte de la parcela 23 del polígono 10, para la creación de la UE-LEKUEDER del Plan General Municipal, promovida por -----, antes reseñada.**
- 2) Al mismo tiempo, solicitar la eliminación de la exigencia del estándar mínimo de vivienda de protección oficial de acuerdo con el artículo 52.2 de la Ley Foral 35/2002, por las razones aducidas en el documento que está en tramitación.**
- 3) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.**

- tamentuak behar den txosten orokorra
egin dezala hasiera batez onartu den
aldaketa hau bidaltzea.**
- 5) Udal Plan Orokorraren aldaketa honek
eragindako zonaldean, hots, 10. poligo-
noko 23. lur-zatiko eremuan, obra bai-
menak ematea eten gelditu direla seina-
leztatzea.**
- 6) Aipatu eremuko jabeei eta interesatuei
erabaki hau bidaltzea. Aldi berean,
adieraztea izapide-egintza denez ezin
dela inolako errekurtsorik jarri.**
- 4) Remitir esta modificación inicialmente aprobada al Departamento de Fomento del Gobierno de Navarra para que emita el informe global correspondiente.
- 5) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendida en el área afectada por esta modificación del Plan General Municipal, esto es, en la parcela 23 del polígono 10.
- 6) Notificar este acuerdo a las partes propietarias incluidas en el ámbito antes indicado y a las personas interesadas, indicándoles que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

*J. M. Portu zinegotziak eskatu du horrelako
espedienteen informazioa lehenago ematea.*

*Alkateak erantzun dio expedientea aspaldikoa
dela eta hasieran bai ikusi zutela Hirigintza
Batzordean nahiz eta azken pausuak egia-
zan ez dutela comentatu, agian uda, ope-
rrak.....*

**5.- UU24AN, (9. P., 379 L.), UDAL PLAN
OROKORRA ALDAKETA XEHAKATUA
EGITEKO HASIERA BATEZ ONESTEA:**

*Idazkariak gaia azaldu ondoren, aho batez,
legeak eskatutako gehiengo osoa izanik,
honako erabakia hartu dute:*

**Ikusirik, UU24an (379. lur-zatia, 9. poligo-
noa) Udal Plan Orokorraren aldaketa xeha-
katua egiteko eskaera, -----
k sustatua.**

**Dokumentazioa: Planaren Aldaketa Xeha-
katuaren proiektua, -----
arkitektoek egina, 2012ko martxoan eta 1.
eranskina ekainakoa.**

*El concejal J. M. Portu solicita que sobre este
tipo de expedientes se les informe antes.*

*La Alcaldesa le responde que este expediente
lleva tiempo y en los inicios sí que se vio en la
Comisión de Urbanismo aunque es cierto que
los últimos pasos no se han visto, quizás el
verano, vacaciones.....*

**5.- APROBACIÓN INICIAL MODIFI-
CACIÓN PORMENORIZADA DEL PLAN
GENERAL MUNICIPAL EN UU24 (P. 9, P.
379): -----**

*Tras la explicación de la Secretaria del
asunto, por unanimidad, que representa la
mayoría legalmente exigida, se adopta el
siguiente acuerdo:*

**Vista solicitud de modificación pormenorizada
del Plan General Municipal, en la UU24
(parcela 379, polígono 9), promovido por -----
-----**

**Documentación: Proyecto de modificación
pormenorizada del plan, redactado por los
arquitectos -----, de fecha
marzo de 2012 y anexo nº 1 de junio del
mismo año.**

Ikusirik, honi buruz Nasuvinsaren txostenak 2012ko ekainaren 12 eta abuztuaren 21ekoan.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/90 Foru Legearen 322.1.a) artikuluan jarraikiz Idazkaritzak 2012ko urriaren 1ean egindako txostena.

Lurraldearen Antolamenduari eta Hirigintzari buruzko 35/2002 Foru Legearen 79. 3 eta 74 artikuluekin bat etorri.

Aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, ERABAKI DUTE:

1) -----k aurkeztutako Udal Plan Orokorraren aldaketa xehakatua, UU24an, (9. poligonoa, 379. lur-zatia), hasiera batez onestea honako oharrekin:

1.1) Behin betiko onesprena egin baino lehen eginiko aldaketaren testu bateratua aurkeztu behar du non ondoko hau sartua egon behar den:

- Arautegian, 1. eranskinaren edukia.**
- 7. planoan, 380. partzelan urbanizatu eta bide publikorako lagatu behar den zatia.**
- Jendaurreko epean alegaziorik izan ezkerro, horiei buruzko txostenean agertzen ahal diren aldaketak.**

2) Aipatu aldaketa hilabete bateko epean jendaurrean jartzear, Nafarroako Foru Komunitatean argitaratzen diren egunkarietan eta Nafarroako Aldizkari Ofizialean aurrez aurreko iragarkia jarrita.

3) Udal Plan Orokorraren aldaketa honek eragindako zonaldean, hots, 9. poligono-ko 379. partzelan, obra baimenak ematea

Vistos informes de Nasuvinsa de 12 de junio y 21 de agosto de 2012.

Visto informe de Secretaría de 1 de octubre emitido según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/90 de Administración Local.

De acuerdo con lo establecido en el artículo 79.3) y 74 de la Ley Foral 35/2002 de Ordenación del Territorio y Urbanismo.

Por unanimidad, que represente la mayoría absoluta legalmente exigida, SE ACUERDA:

1) Aprobar inicialmente la modificación por menorizada de la UU24 (P. 9, P. 379) del Plan General Municipal presentada por -----, según las siguientes determinaciones:

1.1) Con anterioridad a la aprobación definitiva, se deberá presentar un texto refundido de la modificación incorporando el texto normativo contenido en el anexo nº 1 y la corrección del plano nº 7 incorporando la parte de la parcela 380 que se urbaniza y se cede para vial público. El texto refundido incorporará también las modificaciones derivadas del informe de alegaciones, si las hubiere durante el período de exposición pública.

2) Someter dicha modificación a exposición pública durante el plazo de 1 mes, previo anuncio en el Boletín Oficial de Navarra y en los diarios editados en la Comunidad Foral de Navarra.

3) Señalar que el otorgamiento de licencias de obras queda suspendido en el área afectada por esta modificación del Plan General

eten gelditu direla seinaleztatzea.

- 4) **Erabaki hau interesatuei bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekurtsorik jarri.**

6.- METEOREOLOGIA ESTAZIO AUTOMATIKOA JARTZEKO HERRILURRA OKUPATZEA, HASIERA BATEZ ONESTEA: NAFARROAKO GOBERNUA.-

Idazkariak gaia azaldu du eta horren ondotik, aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, honako erabaki hartu dute:

Ikusirik, Udal herri-lurraren 12. poligono 150-A. lur-zatiko 64 metro karratu okupatzeko expedientea, meteorologia estazio automatikoa jartzeko eta Nafarroako Gobernuaren Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioko Departamentuak sustatua.

Ikusirik, Toki Administrazioari buruzko 6/1990 Foru Legearen 322.1.a) artikuluari jarraikiz Idazkaritzak horri buruz eginiko txostena, 2012ko urriaren 2koa.

Aho batez, legeak eskatutako gehiengo osoa izanik, ERABAKI DUTE:

- 1) **Eskatutako herri-lurra lagatzeko zuzendu behar duen baldintza-plegua onestea.**

2) Eskatu duten 64 metro karratuko herri-lurra okupatzeko expedientea, 12. poligono 150.A lur-zatian daudenak, hasiera batez onestea.

3) Nafarroako Gobernura expediente hau bidali baino lehen katastroaren gaineko dokumentazio grafikoa aurkeztu behar

Municipal, esto es, en la parcela 379 del polígono 9.

- 4) Remitir este acuerdo a las partes interesadas, indicándoles que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

6.- OCUPACIÓN DE TERRENO COMUNAL PARA INSTALACIÓN DE ESTACIÓN METEOROLÓGICA AUTOMÁTICA, APROBACIÓN INICIAL: GOBIERNO DE NAVARRA.-

Explicado el asunto por la Secretaría, por unanimidad, que representa la mayoría legalmente exigida adoptan el siguiente acuerdo:

Visto expediente de ocupación de 64 metros cuadrados pertenecientes a la parcela 150-A, del polígono 12 del comunal de este Ayuntamiento, promovido por el Departamento de Desarrollo Rural, Medio Ambiente y Administración Local del Gobierno de Navarra para la instalación de una estación meteorológica automática.

Visto informe de Secretaría emitido al efecto según lo establecido en el artículo 322.1.a) de la Ley Foral 6/1990 de Administración Local.

Por unanimidad, que representa la mayoría absoluta legalmente exigida, SE ACUERDA:

- 1) Aprobar el pliego de condiciones que ha de regir la ocupación del terreno comunal solicitado.

2) Aprobar inicialmente la ocupación de 64 metros cuadrados de terreno comunal solicitados, sitos en la parcela 150-A del polígono 12.

3) Comunicar al solicitante que antes de la remisión del expediente al Gobierno de Navarra deberá presentar documentación gráfica, sobre

duela interesatuari jakinaraztea.

Dokumentazio honetan partzela eta ukitutako lurrak identifikatu behar dira. Zedula partzelaria, planoa, etabar.

4) Expediente hau 15 lan eguneko epea jendaurrean jartzea.

5) Alegaziorik ez badago hasiera batez onartutako herri-lurra okupatzeko expedientea behin betiko bihurtuko dela eta expediente hau Nafarroako Gobernuari igorriko zaio onespena egin dezala adieraztea.

6) Erabaki hau interesatuari bidaltzea. Aldi berean, adieraztea izapide-egintza denez ezin dela inolako errekurtsorik jarri.

7.- HONDAKINAK KUDEATZEA: MATERIA ORGANIKOAK BILTZEKO ALTERNATIBAK.

Alkateak azaldu du gaia: zonaldean bilerak egin dira; teknikoen egin zuten txosten bat eta horren ondorioz atez ateko sistema aterada egokiena.

Horren ondotik, honako adierapenak izan dira:

Santiago Alzuguren:

PNV/EAJk aurkako botoa emanen du 5. kontenedorearen alde baitaude, gainera, ikusi du atez ateko sistema jarri duten herrietan eta usai txarra, zikina, azkenean zenbat jende beste herrietara eramatzen dute zaborra. Baita ere, arraindegia, harategia eta ostatuen kasuan, hotzgailuak izan behar dituzte eta horrek ere koste ekonomikoa eta ingurugirokoa baditu.

base catastral, que identifique las parcelas o parte de las parcelas y terrenos afectados. Cédulas parcelarias, Planos, etc

4) Someter a información pública el expediente durante el plazo de 15 días hábiles.

5) Señalar que si no hubiera alegaciones la aprobación inicial del expediente de ocupación de terreno comunal pasará a aprobación definitiva y se remitirá el expediente al Gobierno de Navarra para su aprobación.

6) Trasladar este acuerdo al interesado, indicándole que por tratarse de un acto de mero trámite no cabe recurso alguno.

7.- GESTIÓN DE RESIDUOS: ALTERNATIVAS PARA LA RECOGIDA DE MATERIA ORGÁNICA.

La Alcaldesa explica el asunto: se han realizado reuniones en la zona, se ha elaborado un informe técnico y, como consecuencia, ha resultado como más idóneo el sistema “puerta a puerta”.

Tras ello se producen las siguientes manifestaciones:

Santiago Alzuguren:

El PNV/EAJ votará en contra porque están a favor del 5º contenedor que posibilita hacer compost. Además ha visto en lugares donde se hace el puerta a puerta y hay malos olores, suciedad...y, al final, hay gente que lleva la basura a otras ciudades. También, en el caso de pescaderías, carnicerías y hostelería obliga a disponer de cámaras con lo que supone de gasto económico y medioambiental.

Alkateak:

Gaia oso importantea da eta jendeari kontzientzatu egin behar zaio, utzikeria ezin da bultzatu. Zaborra murriztea garrantzitsua da eta aztertu egin behar da ongi nola egin eta kontrolatu etekin egokiak ateratzeko..

Jose M. Portu:

Birziklatzeko atez ateko sistemak eragina handiago du.

Nekane Perez:

Apostua egin da eredu honengatik hoberena delako ez behartuak, ikusirk birziklaparen kopurua eta gastua.

Juan Losa:

Bilduren proiektu izarra da eta dauden herrietan jendeak beste herrietara eramatzen dute.

Jose M. Portu:

Ez da Bilduren proiektu izarra, Italian, Katalunian, Madrilen ... egiten da, horrela hitz egiten du datuak ikusi ez dituelako.

Eztabaidea ondoren, bozketa egin dute horrelako emaitza izanik:

Alde: 8 boto (4 Aralar eta 4 Bildu)

Aurka: 3 (2 PNV/EAJ eta 1 UPN).

Beraz, honako erabakia hartu dute:

Nafarroako Hondakinak Kudeatzeko 2010-2020 Aldiko Plan Integratuak, gaur egun sortzen diren hondakinen %10a murrizteria derrigortzen du. Hala nola, biohondakinen bilketa berezia ezartzea, Planaren iraunal-dian %50a biltzeko, eta gehienez %10eko portzentajea izan beharko du desegokiak diren hondakinetan.

Hondakinak kudeatzeko Plan Integratuak ez du ezartzen biohondakinen bilketarako eredu bakarra Foru Komunitatean. Ego-kiagoa irizten da Toki Erakundeek proposatzea zein sistema ezarriko den beren Udalerrrian hondakin organikoak biltzeko, betiere, egokiak badira biohondakinen %50 bereiz biltzeko, eta ez egokiak diren honda-

Alcaldesa:

Es un tema muy importante y hay que concienciar a la gente, no se debe promover la dejadez. Disminuir la basura es primordial y hay que analizar bien cómo hacer y controlar para lograr buenos resultados.

José M. Portu:

El sistema de puerta a puerta tiene un mayor efecto.

Nekane Pérez:

Se ha apostado por este sistema por ser el mejor no por ningún tipo de obligación, vista la cantidad de reciclaje y el gasto.

Juan Losa:

Es el proyecto estrella de Bildu y en los pueblos donde está implantado la gente lleva la basura a otras localidades.

José M. Portu:

No es el proyecto estrella de Bildu, también se hace en Italia, Cataluña, Madrid....., habla así porque no ha visto los datos.

Tras la discusión, se lleva a cabo la votación que resulta lo siguiente:

A favor: 8 votos (4 Aralar y 4 Bildu)

En contra: 3 (2 PNV/EAJ y 1 UPN)

Por lo que, adoptan el siguiente acuerdo:

Conforme al Plan Integrado de Gestión de Residuos de Navarra 2010-2020(PIGRN) es obligatoria la reducción en un 10% la generación actual de residuos, así como la recogida del 50% de los bioresiduos durante el periodo de vigencia del Plan con un porcentaje máximo de impropios del 10%.

El PIGRN no determina un único modelo de recogida de biorresiduos para toda la Comunidad Foral, ya que se considera más adecuado que sean las Entidades Locales las que propongan el modelo de recogida separada de bioresiduos siempre y cuando sean adecuados para alcanzar el 50% de recogida separada de los biorresiduos

kinen kopurua gehienez %10 bada.

Zabor bilketaren kudeaketa, Baztan, Maleerreka eta Bortzirietako Mankomunitateen arteko elkarlanean garatzen da.

2012/03/26an izandako bileran, honen inguruo ikerketa bat egitea adostu zen. Hobernu nagusia, zonalderako alternatibarik hoberena aukeratzea da, ikerketak eman-dako datuetan oinarriturik. Xede, materia organikoa biltzeko badiren alternatiba desberdinak teknikoki eta ekonomikoki definitzea eta ebaluatzea da.

Ikerketa-lan honen berri, Berako Udaleko alderdi politiko guztiei eman zaie.

Egindako lanaren ondorioak aztertu dira, alde tekniko, ekonomiko zein ingurogiro ikuspegitik; hainbat herrietan konposta egi-tea bultzatzea aurreikusten da eta bertze herri batzuetan, Beran, erraterako, bi frak-zio atez ate biltzeko sistemarekin bilketa proiek-tua diseinatzea. Hau da, beira, paper-kartoi eta edukiontzien kontenedoreak mantendu eta gai organikoa eta errefusa atez ate biltzea.

Hortaz, ERABAKI DUTE:

1) Materia organikoa biltzeko badiren alternatiben artean, BERAn bi frakzioko (organikoa eta errefusa) atez-ateko sistema ezartztea.

2) Aldi berean, baserri auzoetan konposta egitera bultzatzea, norberak zein herri mailan. Hauek horrela, Nafarroako Honda-kinak Kudeatzeko 2010-2020 Aldiko Plan Integratuak eskatutakoa betetzea.

de su ámbito y con un máximo del 10% de impropios.

La gestión de la recogida de residuos se lleva a cabo en coordinación entre las Mancomunidades de Baztan, Malerreka y Bortziriak. En la reunión celebrada el 26/03/2012, se acordó la elaboración de un estudio para definir y evaluar técnica y económicamente las distintas alternativas para poner en marcha una recogida selectiva de la materia orgánica en Baztan, Bortziriak y Malerreka. El objeto del mismo era poder tomar una decisión basada en datos para optar por la alternativa más favorable para la zona.

El citado estudio se ha presentado a los grupos políticos del Ayuntamiento de Bera.

Las conclusiones del estudio han sido analizadas, valorando tanto los criterios técnicos como los económicos y medioambientales y se cree conveniente impulsar el compostaje en la mayoría de los pueblos pequeños y diseñar para los pueblos mayores, Bera entre ellos, el proyecto de recogida selectiva con el sistema puerta a puerta de dos fracciones. Esto es, mantener los contenedores de vidrio, papel-cartón y envases y recoger puerta a puerta la fracción orgánica y la fracción resto.

Por todo ello, SE ACUERDA:

1) Establecer como alternativa de recogida selectiva de la materia orgánica el sistema puerta a puerta para dos fracciones (orgánica y resto) en Bera.

2) Asimismo, impulsar el compostaje tanto individual como comunitario en los barrios de caseríos, para cumplir con lo establecido en el PIGRN 2010-2020..

--

8.- J. GARCIA SACRISTAN ALBIENTEA-REN JULIZAZIOA.

----- *albientearen jubilazioa dela eta, Alkateak bere zerbitzuak eskertzeko testua irakurri du eta, horren ondoren, aho batez ONARTU DUTE honako testua izanik:*

Urteak eman ditu Josek herriko albiente lanetan, orain agurtzeko momentuan Udal honek eskerrak eman nahi dizkio zintzoki. Seguru gaude momentu goxoak eta momentu latzak pasatu dituzula lanean, bitztan ikasteko guztiak beharrezkoak dira, hala ere espero dugu zure oriomenean guztien artean gelditzen den sentsazioa pozgarria izatea.

Lan bakoitzak berea du, Herriko lanetan aritzean ardura handia izaten da eta zama hori izatea ez da beti erraxa izaten. Beti ez bada, batzutan gure lanaren fruitua ikus-teko aukera izaten dugu, horrek poza ematen digu eta lanean segitzeko indarra ematen digu.

Eskerrik asko Jose, zuk zurea utziko duzu Udal honetan eta herri honetan, zure estiloa, seriotasuna hurbiltasunarekin jantzita, liskarraren erdian, ahotsa altxatu gabe elkarritzetara jo duzu, azalpenak pazientziaz eman dituzu, zure papera idatzita gelditzen da hemen.

Segi orain txirrindulan herriko eta inguruoko errepideak korritzera, lagunartean berriketen aritzera, familiarekin goxatzera eta tarteka etorri zaitez lankideak bisitatzen.

Bertzerik gabe, ESKERRIK ASKO eta ONGI IBILI!

9.- MOZIOA. HORREN BIDEZ, NAFA-RROAKO GOBERNUARI ESKATZEN ZAIO ESPAINIAKO GOBERNUAK ETENGABE EZARTZEN ARI DEN MU-

8.- JUBILACIÓN DEL ALGUACIL J. GARCÍA SACRISTÁN.

